

ZALDIBIAKO JAIAK 2022



ZALDIBIAKO SANTA FE FESTAK
URRIAK 5, 6, 7, 8, 9 eta 15

Agurra

Kaixo herritar,

Aurten bai, badatoz herriko festak, denbora luzez itxarondakoak, hainbeste desiratutakoak. Bai, festa eta umorea, gauza serioa baita.

Eta horregatik, mimo bereziz antolatu dira aurtengoak. Ohiko eragile eta herritarren bultzada nekaezinaz gain, beste hainbaten iritziak eta ekarpenak entzunez eta jasoz. Ondorengo orrietan errepikatuko badugu ere, ESKERRIK ASKO herriko festen antolakuntzan eta lanetan aritu eta ariko zareten guztioi. Hitz gutxitan, zuek gabe ezinezkoa litzatekeelako.

FESTAK HERRITIK ETA HERRIARENTZAT. Elkarlana bultzatuz, denentzako tokia izango duten ekintzekin, gure balioen ispilu. Eta batez ere, askatasunez eta elkarrekiko errespetuz biziko ditugun festak izan daitezela.

*Herri txikietako festetan esnatuko bagina bihar
Dantzatuko genuke plazetan sekula santan ez bezala
Eta kantu bakoitzean utziko genuke eztarria
Azkenengoa bailitzan edota denetan lehenengoa
Zeinen ederra izango den!
(Zetak Musika taldearen abesti zatia)*

GOZATU, EGIN IRRI, EGIN DANTZA, EGIN KANTU, IZAN ASKE ETA ASKE SENTIARAZI ALDAMENEOA. Berriz ere familia eta lagunartean elkartzeko aukera ematen duten jai hauetan, gogoan izan ditzagun gure artetik joan direnak eta eraman zituztenak. FESTETAN ERE FALTA DIRENAK GOGOAN!

Ondo pasa festak zaldibitar!

Zaldibian, 2022ko irailean

OHARRA:

Etxe eta auzoak alaitzeko Ikurrinak eskura dituzue
Udaletxean eta Kultur Etxean euro baten truke.
(Ikurrina bat etxeko)



Jaiak ondo pasa!

УХІСЛЕБЕЎ СІМА

Qué passis unes bones festes!

اچھی چھنیاں گزاریں

Aproveitem bem as festas!

Have fun at the town's festivals!

चाइपर्व शक्रोश्वा ममाउनुहोस

Viel Spass beim fest!

استمتعو بالاحتفالات

Amuse-vous bien dans les fêtes!

Disfruta de las fiestas!

SĂRBĂTORI FERICITE

Pasade boas festas!

BHAIN SPRADI AS NA SAOIRSE!

Herriko festen antolakuntza: elkar entzun eta elkar ekin!



Sarrera

Azken urteetan nabaria zen festa batzordearen funtzionamenduak hobekuntzak behar zituela, guztion artean eta guztion neurriko festak antolatze aldera. Horregatik, aurtengo jaien diseinu eta antolakuntzarako saioetan lanketa berezia egin da ahalik eta herritar multzo gehienei entzuteko, festen hartzaile eta parte-hartzaile diren moduan.

Horrela, herriko talde, eragile edo elkar-teetako ordezkariak ezezik, norbanako ugarik parte hartu du saioetan. Azken hauen artean badira deialdi irekiari erantzunez etorri direnak, baina baita gonbidapen zuzena jaso zutenak ere, festen hartzaile eta parte-hartzaileen profil desberdinak saioetan izan zitezela ziurtatzeko.



Hiru saio programatu ziren festen diseinurako, saio bakoitzean gai eta ariketa ezberdinak landuz. Lehen unetik argi azaldu zenez, helburu nagusia entzutea izan da, bai udaletik egin diren proposamenei buruzko iritziak emanez, baita ekarpenak eginez ere. Horretarako hainbat dinamika probatu dira saioetan, norbere iritziak ematea eta besteenak ere entzutea erraztu asmo zutenak.

Kultura eta partaidetza alorreko udal teknikariek prestatu eta gidatu dituzte saioak eta udal ordezkariak ere bertaratu dira puntu zehatz batzuetan azalpenak emateko eta batez ere, herritarren iritziak entzuteko zereginarekin.

LEHEN SAIOA

Festak ere gure balioen ispilu

Ekainaren 27an egin zen lehen saioa, herri antzokian. 30 lagun bertaratu ziren, 17 herriko talde/elkar-teen ordezkari-tan eta 13 norbanako gisa. Bestalde, 2 udal langile, 2 zinegotzi eta alkatea ere bertan ziren. Prozesu osoaren helburu eta programa azaldu ondoren, zaldibitarren balioak biltzeko ariketa egin zen.

Herrikoia, parte-hartzailea, euskalduna, anitza, elkarlana eta integratzaile/eskuzabala. Horiexek izan ziren gehien errepikatutako hitzak.



Ondoren, jaietako egunak eta txupinazoa nork bota proposamenak azaldu ziren eta aurtengo festetarako aurrekontuaren berri ere eman zen. Puntu hauen guztien inguruan iritziak bildu ziren eta gogorarazi zen, uztailaren 1era arte irekita zegoela edozein herritar eta taldeentzat festetarako proposamenak egiteko epea.

BIGARREN SAIOA

Egitaraua eta festa-eremua hizpide

Uztailaren 13ko saioan ere ez zuten hutsik egin herritarrek. 26 lagun, bost taldetan banatuta, herritarren ekarpenetatik eta herriko taldeen proposamenetatik abiatutako egitarau zirriborroaren aurrean jarri genituen lanean. Osatu, moldatu, nabarmendu eta batez ere galdera bat: egitarauko ekintzek lehen saioan bildutako balioak islatzen eta bultzatzen dituzte, edo ez?



Saioaren bigarren zatian festa gunearen antolaketa izan zen mintzagai: trafikoa eta oinezko eremua, barraka eta janari postuen kokapena, hesiz babestuko diren eremuak, eta plaza eremu berria izanik, ohol-tza lekuz aldatu eta estalperako karpa handi bat jartzeko proposamena. Azalpenak eman ondoren, iritziak emateko tarteak ireki ziren.

Udan zehar eta entzundako iritziak oinarri hartuz, egitaraua eta festa-gunearen antolaketa definitzeko lanak burutu dira, baita herriko eragileekin hartu-eman eta bilerak egin ere.

HIRUGARREN SAIOA

Gure balioak indartzera datozen festetarako prest!

Hirugarren eta azken saioan, festen egitaraua eta guneen antolaketa itxitzat eman ziren eta Aske talde feministak eta udaleko berdintasun arloak ondutako protokolo feministaren berri eman zen.

Bukatzeko, eta bide honetan murgildu diren guztiei eskerrak eman ondotik, balorazio orriak bete eta plazara atera ginen festak irudikatzen dituzten hainbat elementurekin talde argazkia atera eta moka-dutxoa egitera.

Garrantzitsuagoa delako zer egiten den baino nola egiten den. Hitz hauek baliatu nahi genituzke saioetan borondate guztiz parte hartu duten herritar guztiei eskerrak emateko.

Festa herrikoiak, parte-hartzaileak, euskaldunak.... Uste dugu herritar guztiok bat gatzela honetan. Era berean uste dugu aurtengo festek balio horiek sustatzeko bidea jarriko dutela. Orain gauza bakarra falta da: gutako bakoitzak norbere alea jartzea bide horretan.



Gora Zaldibiko festak!

Urriak 5 asteazkena

18:30ean Festak hasi aurreko **KALEJIRA HERRIKO GOIZTIRI TXARANGA ETA TXANBOLITERO TXISTULARI**en doinuekin, **ERRALDOI**ek alaiturik, **OLALDETIK PLAZARA**.

19:00etan **TXUPINAZOA** udaletxeko balkoitik. Omenduak, abestiak eta sorpresa gehiago.

Ondoren Erraldoiak, buruhandiak eta herriko Goiztiri txaranga.

20:00etan **MONDEJUA** dastatzeko aukera plazan.

23:00etatik aurrera **MUXUTRUK ERROMERIA**rekin dantzaldia.



10:30etik 13:30era **JOKO MITOLOGIKOAK** plazan, Jokai taldearen eskutik.

“Jokai euskal mitologian inspiratutako jolas sortzaileen konpainia da eta jolas inklusibo, autonomo, sortzaile eta kooperatiboari balioa ematen dio, gailu elektronikoek jolasteko eta erlazionatzeko modua bereganatzen duten garaiotan, belaunaldien arteko harremanak sustatuz. Info +: jokai.eus”

11:00etan **MEZA**

Eguerdian **OIHANA IGUARAN eta IÑIGO MANTZISIDOR “MANTXI” bertsolarien eta HERRIKO TRIKITILARIEN saioa herrian zehar.**

17:30ean **BINGO HERRIKOIA** plazan. Dirurik jokatu gabeko bingoa adin guztietako herritarrei irekia, sari bereziekin.

18:30ean Gaztelupe Pelota Klubeko pelotarien **PILOTA PARTIDAK** Resti pilotalekuan.

Ondoren **Afizionatuen PILOTA PARTIDAK**, Gaztelupe Pelota Klubak antolatuta.

Neskak: Etxekolonea - Mújica / Iturriaga - Ruiz de Larramendi
Mutilak: Mendizabal III - Azanza / Sukia - Elizegi

BARRAKAK 1€an URRIAREN 6an, EGUN OSOZ .



MOZORRO EGUNA

- 11:00etan** **TOKA JOKOA** plazan adin guztietako herritarrei irekia, Beti Gazte Elkartek antolatuta.
- 12:00etan** **HAMAIKETAKOA JUBILATUENTZAT**, Beti Gazte tabernan.
- 11:00etan** **POTTOKAK ETA ZEZENAK** plazan.
- 13:30ean** **HAURREN BAZKARIA** plazan, Guraso Elkartek antolatuta. Haur bakoitzak bere bazkaria ekarri behar du eta arduradun batekin etorri. Postrea eta edaria Guraso Elkartek jarriko ditu. Bazkalondoren jolasak.
- 18:00etan** **KANTU KOLORE** ikuskizuna plazan. *Zuzeneko musika ikuskizuna. Haurrak dira protagonistak eta beraien parte hartze aktiboa bultzatzeko erremintak jartzen dituzte: musika eta kopiatu ditzaketen koreografiak.*
Info +: <https://kantukolore.eus/>
- 19:00-20:30** **MOZORROTUEN PHOTOCALL-A.** Argazkia ateratzeko gunea irekiko da eta parte hartzen dutenek zozketan sartzeko aukera izango dute.
- 20:00-21:15era** **GABENARA** musika taldearen lehen emanaldia plazan.
- 23:00etan** **KILIMAK** musika taldearen kontzertua.
- 00:45ean** **Mozorrotutakoen artean ZOZKETA.**
- 01:00-03:15era** **GABENARA** musika taldearen bigarren emanaldia plazan.



Goizean, 11:00etatik 12:30era bitarte TIPI-TAPA IBILALDIA, herri inguruan plazatik abiatuta eta Beti Gazte Elkarteak gidaturik.

12:30ean **PANCHO BALBUENA MARIATXIA**ren saioa plazan.

14:00etan **PAELLA JANA** plazan. Norberak egin behar du paella plazan bertan edo etxetik ekarrita. Su txapak, txotx-a eta ardoa Udalak jarriko ditu. Izen-ematea: urriaren 4a baino lehen Karreanen edo zaldibia.eus-en. Eman beharreko informazioa: arduradun baten izena, bazkalduko duten pertsona kopurua eta sua beharko den edo ez.

Segidan Bazkalondoreneko **KANTALDI HERRIKOIA**.

17:30ean **MOZORRO FESTA ETA HAURREN JAIALDIA**, Guraso Elkarteak antolatuta. Haurrek eurek erakutsiko dute kanturako, musika tresnak jotzeko... duten abilezia.

Iluntzean **HERRIKO BATUKADA FEMINISTA** herriko kaleetan zehar.

20:00etan "Etxera bidea gertu" lelopean manifestazioa eta topa egitea.

23:00etatik aurrera Kontzertuak: ALARMA MOREA, DJ ÜZKÜLÜZ.

Gauean zehar **BOTILZARRA programa:** aisialdian alkohola edatearen arriskuak murrizteko esku-hartzea, kalean alkohola edaten ari den jendearengana hurbilduz. (Ai-Laket)

INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO GUNEA: gune informatiboa, indarkeria sexistari buruzko kontzientziazioa eta iritzi/bizipenak jasotzeko gunea. (Emagin).



Urriak 9 igandea

11:00etatik aurrera **HERRIKO TXANBOLINTERO TXISTULARIEN GOIZ-DEIA** herriko kaleetan zehar

12:00etatik 14:00etara **ANIZTASUN FESTA: "ARTEA MUGARIK GABE"** lelopean plazan, Etxekonekok Elkartek antolaturik.

17:30ean **IZTUETA DANTZA TALDEAREN EMANALDIA** plazan, Iztueta Dantza taldeak antolaturik.



URRIAK 14 ostirala

UDAZKENEKO V. ZAPI JANZTEA

Afaria Zubiburu elkartearen izango da 21:00etan eta bertso-saioa 22:30etan.

Saioaren ondoren, **entzuleek aukeratuko dute gehien gustatu zaien bertsolaria eta hari jantziko zaio zapia.**

Sarrerak salgai: Joxepane eta Illati tabernetan.

KUADRILLEN EGUNA

- 11:30etik aurrera** **SEGA SAIOA** Almitza Segar Elkartearen eskutik Mugertza baserriko zelaietan.
- 13:00etan** **KUADRILLEN IRTEERA JUN DA JO TXARANGAREKIN** herriko kaleetan zehar.
- 13:30etik 14:30era** **KUADRILEN PHOTOCALL-A.** Kuadrillen argazkiak ateratzeko aukera plazan eta parte hartzen dutenen artean sari baten zozketa egingo da bazkalondoren.
- 14:30ean** **KUADRILLEN EGUNeko BAZKARIA** plazan.
Txartelak herriko tabernetan daude salgai urriaren 11ra arte.
- Ondoren** Kuadrillen arteko **JOKOAK** eta **KALEJIRA** herrian zehar
Jun da jo txarangak giroturik.
- 23:00etatik aurrera** **TRIKIDANTZ** taldearen emanaldia
- Igande goizaldeko 06:30etik 08:30era** **LASKO TXARANGA**rekin kalejira.
- 08:30ean** **TXOKOLATE JANA ETA GAUPASEROEN ARGAZKIA,**
2022ko festei amaiera emanez.



Festetan, erasoen aurrean zer?

1 NOIZ?

ERASOAK DIRA.....

- Iraintzea, umilatzea, kritikatzeta, mehatxatzea,...
- Golpatzea.
- Jarraitzea.
- Deserosotasuna edo beldurra sortzen duen edozein jokabide!
- Baimenik gabe ukitzea edo igurztea.
- Ziztatzea, edozein instrumenturekin.
- Exhibizionismoa.
- Nahiaren aurka hurbiltzea.
- Mendekotasun kimikoa eragitea edo eragiten saiatzea.
- Sexua izateko norbait presionatzea.
- Bortxatzea.
- Adostu gabeko harremana eraso da!



ZALDIBIAKO
UDALA

NORA JO?

- Indarkeria matxistarik gabeko informazio gunea:
urriak 8, 19:00-02:00 plazan.
- Herriko arreata morea 24h:
606 465 981
- Emakumeen indarkeriaren biktimentzako arreata zerbitzua 24h (Emakunde):
900 840 111
- Larrialdi deiak: 112

BABESA ESKAINI.

- **"Nola zaude?" "Zertan lagun zaitzaket?"**
- Gune seguru batera bideratu: argizatua, eseri daitekeena, behar duen denboran egon daitekeena.
- Ez utzi bakarrik, saiatu bere konfiantzazko norbait aurkitzen/kontaktatzen, bestela, gelditu berarekin.

ENTZUN.

- Errespetatu bere denbora:
"Lasai egon, nahi baduzu hemen egongo naiz zurekin."
- **Ez hartu erabakirik bere baimenik gabe.**
- Zer egin nahi duen galdetu.
- **Ez baloratu, ez epaitu, ez jarri zalantzan bere hitza, ez estutu erabakiak hartzeko.**
- Laguntza eskatu behar bada.

JAIETAN ERE

zerO zabor!



**Nola ez,
festetan ere
amalurra zaindu
eta herria txukun
mantendu dezagun.**

Horretarako, guztion aldetik ardura pixka bat besterik ez dugu eskatzen. Zaldibiako Udalak neurri hauek hartuko ditu herriko eragile eta tabernarien laguntzarekin:

- **Mondeju banaketan baso eta plater berrerabilgarriak banatuko dira.**
Mesedez, ez eraman etxera; entregatu horretarako jarriko den gunean.
- **Edalontzi berrerabilgarriak banatuko dira dohainik taberna eta txoznetan.**
Nahi baduzu, kristalezkoak balira bezala, tragoa bukatutakoan barran bertan utzi. Bestela, entregatu gabe, baso berarekin joan zaitezke hurrengo tragoa hartzera. Hori bai, ez utzi edozein bazterretan eta ez bota lurrera!
- **Hondakin bilketa:** ez da inolako aldaketarik izango ordutegietan.

**Guztion ahaleginarekin,
Zaldibia txukun eta amaluraren lagun!**



2019ko jaiak argazkitan





2019ko jaiak argazkitan



2019ko jaiak argazkitan





2019ko jaia argazkitan








2019ko jaia argazkitan





2019ko jaia argazkitan







M^{ene}

☎ 688 453 591

Santa Fe kalea, 41 · 20247 ZALDIBIA

MERTZERIA
BEGO

**EMAKUMEZKO
GIZONEZKO
ETA HAVR
JANTZIAK**

☎ 611 172 779

Santa Fe Kalea Txindoki, 23
20247 ZALDIBIA

goiuri
KOOP. ELK. TXIKIA

Tel.: 609 197 063
goiuri@telefonica.net

okindegia
PAGOSA
opildegia

Ondo pasa festak



Tel: 943 887 462



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - FONTANERIA
BEROGINTZA - CALEFACCION

☎ 609 614 552

Grupo Txindoki, 23 - 4º izda. · ZALDIBIA



Beti Gazte
taberna Zaldibia

Santa Fe 18
☎ 943 88 18 70

Aluminox

Precisión mecanosoldada en
aluminio e inoxidable



Elbarrena Auzoa · Edificio, 72 · Nº 8
Tel.: 943 88 76 08 · Fax: 943 88 56 62
20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)
admin@aluminox.es · www.aluminox.es

Gaztelu

Iturgintza - Fontanería
Berogailu - Calefacción

Erakusketa / Exposición
Esteban Lasa 7 - Beasain
☎ 943 88 80 29 · faxa: 943 161 464

gaztelu.koop@gmail.com
www.gazteluiturgintza.eus

ITXARO
ILEAPAINDEGIA

Santa Fe, 4 bajua
Zaldibia
☎ 696 756 062

ARRESE

Jatetxea
Baskari eta Afariak

Santa Fe Jai
zoriontsuak

☎ 943 45 95 36

ZALDIBIA

ILEAPAINDEGIA



943 88 57 49 • ZALDIBI



ETXEAN EGINDAKO MONDEJUAK

Azarotik otsailera larunbat eguerdi
eta gauean enkarguz ardiki gixtua
eta zezina jateko aukera

T. 943 88 31 05 Santa Fe kalea ZALDIBIA



Txindoki

Txindoki Sukaldeak

☎ 943880398

✉ info@txindoki.com

📍 Jose Migel Iturrioz • Beasain

www.txindoki.com



Joxepane
Herri Ostatua

Zaldibia - 943 88 91 28



MUGERTZA



info@mugertza.com

www.mugertza.com



GOENAGA S.A.

ALTZAIURU HERDOILGAITZ SALEROSKETA

☎ 943 880 663

ELBARREN AUZOA Z/G

20247 **ZALDIBIA**



Muñagorri Enea

20115 **ASTIGARRAGA** (Gipuzkoa)

☎ 943 555 647 · Mugikorra: 679 123 892



Santa Fe, 25 behea

☎ 943 88 00 46

ZALDIBIA (GIPUZKOA)



Santa Fe 27

☎ 943 88 28 68

ANBU
ELEKTRIZITATEA, S.L.

Elbarrena 72, 5. Pab.
20247 **ZALDIBIA**



☎ 943 16 51 35

urtsutaberna@gmail.com

Santa Fe 8 · **ZALDIBIA**

txaro

OGIA · LOTERIAK
GARBIGAIDENDA
OPARIAK · ELIKAGAIK
ESKOLAKO MATERIALA

☎ 943 16 08 76

AZTIA-BERRI, 1 · 20247 ZALDIBIA



MOZORRO DENDA · DISFRACES

Elbarrena industrialdea, 72-1
20247 ZALDIBIA (Gipuzkoa)

☎ 943 88 82 32

www.jaiakdenda.com



Nekazal Turismoa
Jatetxea

LAKAO ETXE



☎ 943 88 00 44 / 615 74 59 24
ZALDIBIA

Hotel Zelaa

Pol. Elbarrena 32
20247 Zaldibia

Tel.: 943 16 16 66

Fax: 943 88 45 27

info@hotelzelaa.com



Zure eguzki energia
instalatzailerekin,
izan burujabe



EGUZKI
ENERGIA
PLAKAK



Aurreztu.



Ecofriendly.



Autokantsumoa.



TAPIA
energia



Energia berdea
zure esku!

T 943 889 594

www.tapiaenergia.com

FESTA ONAK IGARO!

Aurrekontua

2022ko Santa Fe jaietako aurrekontua

Txupinazoa, mondeju banaketa	3.325 €
Musika	20.930 €
Haurren ekitaldiak	4.180 €
Bertsolariak	800 €
Pilota partidak	2.000 €
Herri kirolak	1.200 €
Kuadrillen eguna eta paella jana	800 €
Festetako aldizkaria	1.803 €
Festetako iragarkiak	550 €
Garbiketa	4.290 €
SGAE	1.200 €
Jubilatuen hamaiketakoa	1.000 €
Anbulantzia zerbitzuak	450 €
Beste batzuk: karpa handia, argiteria; oholtza eta hesi garraioa, alokairuak; txarangarako kamisetak komunak; edalontziak; etab ...	12.060 €
GUZTIRA	54.588 €

2019ko Santa Fe jaietako sarrerak

Aldizkariko iragarkiak	1.680 €
GUZTIRA	1.680 €

Euskaber SL enpresak
argitaratzen ditu egitarau txikiak



LIGOTEO
SANOAZ
GOZATU



ONDO PASA
PASA
GABE



**ZALDIBIAKO
UDALA**
www.zaldibia.eus